

Korrontea frogatzen duen beste adibiderik ba ote da?



Azalpena

Korrontea badela nola frogatu?

Etxean agertzen zaizkigun adibide arruntenetatik has gaitezke, argiaren edo anpularen adibidea hartuz. Anpula pizten da eta itzaltzen etengailuaren manuz.

Irratia berdin itzal botoia zapatuz. Beste etxetresnak ere funtsean. Elektrizitatearen kasuan, egiaztatzeko jarduerak arras bereziak dira ezen lanjera bada.

Beraz irakasleak artoski eta kasu handirekin jokatu-ko du.



Abiapuntua

Korrontea badela frogatzeko, lehengo sekuentzia batean erregelaren proba egin genuen. Anpularen argiak ere gauza bera frogatu dezake (ikus aitzineko sekuentziak). Beste adibiderik aurki dezakeguia?

Hipotesiak

Anpulen eta erregelaren adibideetarik kanpo, korrontearen proba ematen duten beste adibide zenbait bilatuko dituzte ikasleek.


Egiaztatuko duen jarduera

Bizpahiru esperientzia proposa ditzakegu.

Egiaztatzeko mementoan, gogoan atxikiko dugu korronte elektrikoaren lanjera.

Pila eta iparrorratza

Laguntza



Nola egin

Iparrorratzari lau zapabost itzuli egingen zaizkio kobre harizpiz.

1 m luzeko bi kobrezko hari puska moztuko dira.

Pila baten bi mihiak idek. Mihi bakoitzari kobrezko hari bat lotuko zaio klipa hari bat baliatuz.

Beste puntan aldiz bi hari horiek iparrorratzaren inguruko harizpiei lot.

Idatzizko ondorioak

Zer ikusten da esperientziaren muntaia bukatzean ?

Zergatik gertatzen da fenomeno hori ?

Ikasleek oharrak idatziko dituzte beren kaieran.


Eskema ere kopia dezakete modelorik gabe.

Pila eta imana

Laguntza

Hiztegia

- 1 kobrezko haria
- 2 xiri sardeduna
- 3 klipa
- 4 pila
- 5 imana
- 6 taula



Idatzizko hatzak

Muntaiaren ondorioek dakartzaten oharrak ikasle bakoitzak bere kaieran nota ditzake. Muntaiaren eskema ere kopia dezake.

Nola egin

- Burdinazko bi xiri sardedun atzeman eta bata bestearen ondoan landa.
- Xiri batetik bestera burdinazko hari bat plegatuko da eskeman bezala. 1 m-eko bi kobrezko hari puska hartuko dira.
- Alde batean hari horiek pilaren bi mihiei lotuko dira klipa batzuk baliatuz.
- Beste puntan, hari horiek berak bederazka xiriei lot.
- Iman bat ezarriko da bi xiri bertikalen artean.

Pila eta itzea

Laguntza



Nola egin

- Hari bat itze luze baten inguruan eman eta bi puntak pilaren bi mihiei lot.
- Itze horri burdinazko itze ttipiako batzuk hurbilduko zaizkio.
- Ondorioa: Imanaren fenomenoak sortuko da eta itze ttipiak itze handiak bereganatuko ditu.